

15

proposamen **tokiko politika** **inklusiboak** bultzatzeko

Udal eta foru hauteskundeak 2015eko maiatzaren 24a



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Pobrezia eta giza bazterketaren
aurkako europar sarea Euskadin
Red europea de lucha contra la pobreza
y la exclusión social en Euskadi
European anti poverty network
in the Basque Country



Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkarte



HARRESIAK
apurtuz

EUSKADIKO GIZARTE EKIMENEN EFA
ESKU HARTZEKO ENTITATEEN ELKARTEA

Hirekin 

ASOCIACIÓN DE ENTIDADES DE INICIATIVA
E INTERVENCIÓN SOCIAL DE EUSKADI



reas
euskadi

ekonomía alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak
Redes para la Inclusión Social en Euskadi

ekaIn

ekaIn, Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak, gizarteratzearen alorrean lan egiten duten Euskadiko gizarte-ekintza erakundeen 6 sare biltzen dituen entitatea da: **Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea**, **EAPN Euskadi** (Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin), **REAS Euskadi** (Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea), **Hirekin** (Euskadiko gizarte ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkarte), **Gizatea** (Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarte) eta **Harresiak Apurtuz** (Euskadiko etorkinen laguntzarako GKEen koordinadora). Bere helburua gizarte inklusiboago bat sustatzea da, ekitatean, solidaritatean eta partehartzean oinarritutako balioak eta politikak bultzatuz.

300 erakunde inguru eta langile eta boluntarioak batuz 10.000 pertsonatik gora biltzen dituzten eta esparru ezberdinetan jarduten diren sareak dira: gizarteratzea, enplegua, gizarterbitzuak, kulturartekotasuna, gizarte-babesa, aukera-berdintasuna, garapenerako lankidetzeta, txirotasunaren kontrako borroka eta gizarte-bazterketa, komunitate-garapena, ekonomia solidarioa eta abar.

Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak
Redes para la Inclusión Social en Euskadi

ekaIn

Plaza Venezuela 1 - 2º izq.- izq. • 48001 Bilbao
ekain@ekainsarea.net
www.ekainsarea.net

2015eko maiatzaren 24an Udal eta Foru hauteskundeak izango dira. **ekalnetik** –Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak–, alderdi politikoei, gizarte-eragileei eta gizarteari oro har, **lurralde inklusiboagoak eta solidarioagoak eraikitzeko** tokiko politikan lehentasunezkoak iruditzen zaizkigun proposamenak helarazi nahi dizkiegu.

Gure ustez, tokiko politika **pertsonen bizi-kalitatea hobetzera** bideratu behar da. Helburu nagusiak izan behar du justizia eta berdintasun sozial maila handiagoa lortzea, **tokiko giza garapen sozial baten eta ingurumen aldetik iraunkor baten** barruan. Ikuspegi horretatik, egungo krisi egoeran, eta hauskortasun sozialaren egoera handituz doala kontuan hartuta, indartu egin behar dira tokiko erakundeen konpromiso politikoa eta aurrekontu-mailako konpromisoa, **herritar guztien ongizatea bermatzera bideratuta dauden politikekin eta jarduerekin**; bereziki, **gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan** dauden sektoreekin. Era berean, gure lurraldeari begira egindako ahalegin hori **elkartasun globalarekin** osatu behar da; hau da, **mundu mailan** pobrezia desagerrarazteko, bidegabekerien kontra borrokatzeko eta giza eskubideen alde borrokatzeko konpromisoarekin.

Ikuspuntu hori abiapuntu hartuta, erakundeetan esku hartzea helburu duten alderdi politikoei proposamen hauekiko konpromisoa eskatzen diegu:

- 1.** Gizarte-kohesioa eta babesa bultzatzeko lehentasunezko alorrak politikoki, teknikoki eta aurrekontu aldetik indartzea: gizarte-zerbitzuak, enplegua eta tokiko garapenaren sustapena, gizarteratzea, etxebizitza, hezkuntza, osasuna...
- 2.** Konpromiso argia **diru-sarrerak bermatzeko sistemetara eta gizarte-zerbitzuetara** sarbide unibertsalaren defentsarekin, inolako mugarik eta estigmatizazio barik.
- 3.** Iruzurraren aurka egitea, eta **zerga-politika** aurrerakoiagoa eta birbanaketara bideratuagoa bultzatzea. Horrela, gizarte-kohesioari eta babesa bermatzeko ezinbesteko zerbitzuei eutsi ahal izango zaie.
- 4.** Bizitza politikoaren, sozialaren eta kulturalaren esparru guztietan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aukeren berdintasuna bermatzeko planetan eta jardueretan eraginkortasun eta tinkotasun handiagoa.
- 5.** Etorkinen hiritartasun osoa eta unibertsala onartzea, haien parte-hartze soziala, ekonomikoa eta kulturala kontuan izanda. Politika publiko integratzaileak sustatzea, **komunitate irekiak, kulturalaniztunak eta pluralak** eraikitzeko lagungarriak izan daitezten.
- 6.** Konpromiso tinkoa **ingurumen iraunkorrean** oinarritutako eredu sozio-ekonomikoarekin. Hondakinak gutxitzea, berriro erabiltzea eta birziklatzea bultzatzea, eta alor horretan enplegu soziala sortzea.

- 7. Tokiko garapeneko** planak bultzatzea alderdi hauek garatzeko: ekonomia solidario eta soziala, enplegu inklusiboa, tokiko eta gertuko merkataritza, elikadura-subirarnotasuna, banka etikoa, energia berriztagarriak, eta abar.
- 8. Jarrera eta jokabide insolidarioak**, arrazistak, edo beste pertsona zein gizataldeekiko gorrotoa sustatzen dutenak erabat geldiaraztea. Ildo horretatik, erakundeetan ardurak dituztenek biztanleria-kolektibo jakinak estigmatizatzeari eta kriminalizatzeari uko egin behar diote.
- 9. Mendekotasun-egoeran** dauden pertsonentzat laguntza baliabideetarako sarbidea unibertsal bihurtzea. Diruz larri eta gizarte-bazterketa egoeran dauden adineko pertsonen beharrei premiazko erantzuna emateari bereziki garrantzitsua deritzogu.
- 10.** Euskadin **etxegabeen** arazoa errotik desagerrarazteko estrategia identifikatzea eta garatzea. Estrategia hori udalek, aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta esparruko hirugarren sektoreko eragileek adostu behar dute.
- 11.** Nazioarteko elkartasunari eta garapenerako lankidetzaren lotutako programei berriro heltzea eta horiek sustatzea, baita munduko pobrezia eta berdintasun ezaren kausen inguruko sentsibilizaziora bideratutako ekintzak sustatzea eta justiziarri nahiz elkartasunari lotutako balioak bultzatzea ere.
- 12. Erosketa publiko sozialki arduratsura** bideratutako neurriak garatzea. Zerbitzuak eta erosketak kontratatzerakoan, erakundeek gizarte-klausulak, eta irizpide etikoak nahiz ingurumenari lotutakoak lehenetsi behar dituzte.
- 13.** Etxe-kaleratzeek edo horniketa-mozketek kaltetutako pertsoneri babesa erakustea eta konponbidea bilatzea; presio-bideak indartzea **finantza-erakundeen eta energia merkaturatzen duten enpresen** aurrean.
- 14. Espazio publikoa eta gizarte-jardueretarako lokalak** erabiltzeko araudiak egokitzea, aukera-berdintasuna, eta adierazpen-askatasuna eta mobilizatzeako eskubidea bermatzeko, bai eta kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna edo sexu-aukera aniztasuna bermatzeko ere.
- 15. Gobernantza parte-hartzailea** ahalbidetzeko guneak indartzea, herritarrak eragiten dieten politika publikoen kudeaketan sartzeko ahalbidetzeko. Gizarte-erakundeak herri-ekimenerako eta esku-hartze demokratikorako eremutzat hartzea eta Hirugarren Sektore Soziala indartzeko neurriak eta baliabideak bultzatzea.